



BALIO PROPOSAMENA

INNIERRE, ikus-entzunezko enpresa bat gara eta bezeroei hainbat zerbitzu ezberdin eskaintzen dizkiegu.

Gure enpresan argazkiak eta bideoak egiten ditugu. Bideo eta argazki hauen muntaketa eta edizioa egiten dugu.

Ateratako argazki zein bideoekin formatu ezberdinak eskaintzen ditugu lanak ematerakoan: albumak, egutegiak, CDak...

Egunean bertan ateratako argazkiekin oroitzapen moduan (bataio, jaunartze, ezkontza...) argazki kopia bat banatzen dugu bezeroen artean.

Kasu guztietan bezeroaren beharretara egokitzen gara, bere eskaera kontuan hartzen dugu bideo zein argazkiak muntatu eta editatzeko.

Ez dugu soilik gure ikuspuntua hartzen, bezeroak nahi duen moduan egiten dugu lana, hau da, bezeroak esaten digu nolakoa nahi duen argazkia edota bideoa.

Erabiltzen dugun materiala (kamerak, ordenagailuak...) merkatuan aurkitu daitekeen hoberenetarikoa da, gure lana ahalik eta efizienteena izan dadin.

Gure bezeroen beharrak gaur egungo berritasunetan oinarritzen ditugu. Horrek, gure lehiakideengatik bereizten gaitu, hau da segmentu berezi bat dugula eta segmentu hori ezkondu behar diren pertsonentzako dago zuezendua, jaunartzea egin behar dutenentzat eta bataioa egiten duten haurren gurasontzat da eskaintza hori. Horretaz gain, prezio eskuragarriak ditugu, edozein maila ekonomikoko pertsonentzat eskuragarri izateko.

Gure enpresaren berezitasun aipagarri bat, ezkontza, bataio, jaunartze... egun berezietan bertan, beraiek momentuan hautatutako argazki baten muntaia egiten dugula da eta eguna amaitzerako beraiek nahi duten formatuan jasoko dutela. Zerbitzu berezi honen truke, 200 euro erantsiko genioke oinarritzko prezioari eta argazki diseinu bakoitzeko 1,50 euro gehituko litzaioke.